Bestelako Xedapenak

NEKAZARITZA, ARRANTZA ETA ELIKADURA SAILA

1602

EBAZPENA, 2009ko otsailaren 13koa, Nekazaritza eta Abeltzaintza zuzendariarena, Nekazaritza, Arrantza eta Elikadura sailburuaren 2008ko abuztuaren 6ko Aginduko laguntzen onuradun-zerrenda jendaurrean jartzekoa. Agindu horrek Euskal Autonomia Erkidegoko sindikatu-izaerako nekazaritzako erakunde profesionalentzako laguntzetarako 2008ko ekitaldiko deialdia egin zuen.

Nekazaritza, Arrantza eta Elikadura sailburuaren 2008ko abuztuaren 6ko Aginduak 2008. ekitaldirako dirulaguntzak iragarri zituen Euskal Autonomia Erkidegoko sindikatu-izaerako nekazaritzako erakunde profesionalentzako, euskal nekazaritza-sektorearekin zerikusia duten gaietan Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorraren hizketakide modura egindako lana dela-eta.

Agindu horretako zazpigarren erabakiak ezarritakoa betez, eskatutako laguntzak esleitu dira Nekazaritza eta Abeltzaintza zuzendariaren Ebazpenaren bidez.

Ebazpenak onuradunei jakinarazi ondoren, eta azaroaren 11ko 1/1997 Legegintzako Dekretuaren 49. artikuluko 2. ataleko bigarren paragrafoan aurreikusitakoarekin bat (Dekretu horrek Euskal Autonomia Erkidegoko Ogasun Nagusiaren Antolarauei buruzko testu bateratua onetsi zuen), honako hau

EBATZI DUT:

Lehenengoa.– Nekazaritza, Arrantza eta Elikadura sailburuaren 2008ko abuztuaren 6ko Aginduak araututako laguntzen onuradun-zerrenda argitaratzea, guztiek ezagut dezaten. Euskal Autonomia Erkidegoko sindikatu-izaerako nekazaritzako erakunde profesionalentzako laguntzetarako 2008ko ekitaldiko deialdia egin zuen agindu horrek.

Bigarrena.– Ebazpen honen aurka, interesdunek gorako errekurtsoa jar diezaiokete Nekazaritzaren eta Arrantzaren Garapeneko sailburuordeari hilabeteko epearen barruan, ebazpen hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta biharamunetik kontatzen hasita.

Vitoria-Gasteiz, 2009ko otsailaren 13a.

Nekazaritza eta Abeltzaintzako zuzendaria,
EDUARDO AGUINACO LÓPEZ DE SUSO.

Otras Disposiciones

DEPARTAMENTO DE AGRICULTURA, PESCA Y ALIMENTACIÓN

1602

RESOLUCIÓN de 13 de febrero de 2009, del Director de Agricultura y Ganadería, por la que se hace pública la relación de beneficiarios de las ayudas previstas en la Orden de 6 de agosto de 2008, del Consejero de Agricultura, Pesca y Alimentación, por la que se convocan ayudas a las Organizaciones Profesionales Agrarias de carácter sindical de la Comunidad Autónoma del País Vasco para el ejercicio 2008.

La Orden de 6 de agosto de 2008, del Consejero de Agricultura, Pesca y Alimentación, procedió a convocar para el ejercicio 2008 las ayudas a las Organizaciones Profesionales Agrarias de carácter sindical de la Comunidad Autónoma del País Vasco, por el desarrollo de las funciones de interlocución social con la Administración General de la Comunidad Autónoma en materias atinentes al sector agrario vasco.

Mediante Resolución del Director de Agricultura y Ganadería, en cumplimiento de lo establecido en el resuelvo séptimo de la precitada Orden, han sido adjudicadas las ayudas solicitadas.

Así, una vez notificadas las resoluciones a sus correspondientes adjudicatarios, y de conformidad con lo previsto en el apartado 2, párrafo segundo, del artículo 49 del Decreto Legislativo 1/1997, de 11 de noviembre, por el que se aprueba el Texto Refundido de los Principios Ordenadores de la Hacienda General del País Vasco,

RESUELVO:

Primero.– Publicar, para su general conocimiento, la relación de beneficiarios de las ayudas previstas en la Orden de 6 de agosto de 2008, del Consejero de Agricultura, Pesca y Alimentación, por la que se convocan ayudas a las Organizaciones Profesionales Agrarias de carácter sindical de la Comunidad Autónoma del País Vasco para el ejercicio 2008, que se incluye como anexo a esta Resolución.

Segundo.– Contra la presente Resolución podrá interponerse recurso de alzada ante el Viceconsejero de Desarrollo Agrario y Pesquero en el plazo de un mes a contar desde el día siguiente al de su publicación en el Boletín Oficial del País Vasco.

En Vitoria-Gasteiz, a 13 de febrero de 2009.

El Director de Agricultura y Ganadería,
EDUARDO AGUINACO LÓPEZ DE SUSO.

ERANSKINA/*ANEXO*

EUSKAL NEKAZARITZA-SEKTOREAREKIN ZERISKUSIA DUTEN GAIETAN EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO ADMINISTRAZIO OROKORRAREKIKO HIZKETAKIDE MODURA JARDUTEKO LAGUNTZAK

AYUDAS POR EL DESARROLLO DE FUNCIONES DE INTERLOCUCIÓN SOCIAL CON LA ADMINISTRACIÓN GENERAL DE LA COMUNIDAD AUTÓNOMA DEL PAÍS VASCO EN MATERIAS ATINENTES AL SECTOR AGRARIO VASCO.

Onuradunak *Beneficiarios*	Dirulaguntza eurotan *Subvención en euros*
Euskal Herriko Nekazarien Elkartasuna - E.H.N.E. - Bizkaia	52.452,99
Euskal Herriko Nekazarien Elkartasuna - E.H.N.E. - Gipuzkoa	57.373,10
Euskal Nekazarien Batasuna - E.N.B.A. - Bizkaia	34.213,67
Euskal Nekazarien Batasuna - E.N.B.A. - Gipuzkoa	29.293,56
Unión de Agricultores y Ganaderos de Álava - U.A.G.A.	86.666,66